



## **IRURTZUNGO I. ARGAZKI-LEHIAKETA: OINARRIAK**

Irurtzungo Udalak Irurtzungo I. Argazki Lehiaketaren deialdia egin du.

1. Aukeratutako argazkiak Irurtzungo urteko egutegia egiteko erabiliko dira.
2. 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

### **3. GAIK:**

Bi gai proposatzen dira:

#### **3.1 . Paisaiak eta ondarea.**

#### **3.2. Jai- eta kultur-ekitaldiak eta kultura Irurtzunen.**

- Irudiak Irurtzunen edota bertako paisaietan egon behar dira.
- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu gai bakoitzeko, eta egile berak ezingo ditu bi sari baino gehiago jaso.

### **4. ENTREGATZEKO EPEA, BIDALKETA:**

- Lanak aurkezteko azkeneko eguna azaroaren 16an izango da, 14: 00etan.
- Posta elektronikoz bidal daitezke argazkiak [irurtzun@gmail.com](mailto:irurtzun@gmail.com) helbidera, gaian "Irurtzun argazki lehiaketa" adierazita, edo USB batean, Kultur Etxean entregatuta. USBa jabeari itzuliko zaio.

### **5. AURKEZPENA:**

- Argazkiak JPG./JPEG formatu elektronikoan aurkeztuko dira, 30 cm-ko tamaina izango dute argazkiaren alde nagusian eta 300 ppp-ko gutxieneko bereizmena.
- Erantsitako beste artxibo batean (.doc) edo (.docx), honako datu hauek adieraziko dira: Argazkiaren izenburua / Izen-abizenak / NAN / Jaiotza-data / Helbide elektronikoa / Harremanetarako telefonoa / Argazkiaren datuak (tokia, data...)
- Erantsitako bi artxiboek (1. argazkia - 2. titulua eta lehiakidearen datuak) titulu bera izan beharko dute.

### **6. SARIAK.**

- Guztira 12 sari banatuko dira, 50 eurokoak.

### **7. EPAIMAHAIA.**

- Epaimahaia deialdia egin duen erakundeak izendatuko du, argazkigintzan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta ulturako zinegotzia izango da epaimahaiburua. Kultura-koordinatzaileak jardungo du idazkari-lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Saritutako argazkiak Irurtzungo Udalarenak izango dira aurrerantzean, eta Udalaren esku geratuko dira argazki horien gaineko eskubide guztiak. Beraz, baimena izango du lanak irabazi-asmorik gabeko helburuetarako erreproduzitzeko, betiere egilearen izena aipatuta.

8. Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.

Irurtzun, 2020ko azaroa